

**M^a VICTORIA JOARISTI OLARIAGA
ANDREA, OIARTZUNGO UDALAREN
IDAZKARI NAIZENAK**

ZIURTATZEN DUT: Udal honen Osoko Bilkurako Batzarrak, 2021eko otsailaren 24an, beste batzuen artean, ondorengo Akordioa hartu zuela:

2021. URTEAN OIARTZUNGO KIROL KLUBEK EDO ELKARTEEK FUNTZIONAMENDU GASTUETARAKO ETA BERAIEIEN JARDUNA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZAK BANATZEKO OINARRIEN ONARPENA.

Diru-laguntzen araubidea xedatzen duen azaroaren 17ko 38/2003 Legea eta horren garapenerako Erregelamenduaren (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua) baitan, Oiartzungo Udalak dirulaguntzak arautzeko Ordenantza onartu zuen. Ordenantza 2018ko azaroaren 30eko GAOean argitaratu zen eta biharamunean sartu zen indarrean.

Aipatu Ordenantzan xedatutakoaren arabera, Kirol Elkarteen funtzionamendu gastuetarako dirulaguntzak programa, Kirol sustapena izeneko 8. lerro estrategikoan barneratu zen Oiartzungo 2019-2021eko Plan Estrategikoan.

Halaber, 2021 ikasturtean Oiartzungo kirol-klub eta elkarteen ohiko funtzionamendua garatzeko, kirol modalitate bakoitzaren denboraldiak hartzen duen aldiaren arabera, norgehiagoka prozeduraren bidez, dirulaguntzak banatzeko Oiartzungo udalaren dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezartzeko, Gazteria eta Kirola zerbitzuko arduradunak 2021 urteko oinarriak idatzi ditu, eta ordainketarako 54.000 €ko izendapena egin da 2021 urteko udal aurrekontuko 1 1102 481 341 00 02 diru-atalaren kontura.

2021ko otsailaren 18an egindako Gazteria, Kirola eta Hezkuntza Ez Arautua Batzordeak aldeko diktamena eman zion gastuari eta oinarri onarpenari

Guzti hau kontuan hartuta, Udalbatzak honako erabakia hartu du:

LEHENA: 2021an Oiartzungo kirol klubek edo elkarteek funtzionamendu gastuetarako eta beraiei jarduna sustatzeko dirulaguntzak banatzeko oinarriak, eranskinean jasota dauden moduan, onartzea.

Era berean, 54.000 €ko gastua onartzea 2021 urteko udal aurrekontuko 1 1102 481 341 00 02 diru-atalaren kontura (A-226/2021).

BIGARRENA: Oinarriok BDNS plataformaren bidez eta udal web orriaren bidez jendaurrean jarriko dira eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunaren biharamunean irekiko da eskaerak aurkezteko 30 egun naturaleko epea.

2021DI03010001

Eta horrela jasota gera dadin ematen dut ziurtagiri hau, azaroaren 28ko 2.568/1.986 Errege Dekretuaren 206 artikulua araber, Oiartzunen, sinaduraren egunean.